

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	OSATEK, S.A.
2. Sektorea:	Osasungintza
3. Langile kopurua:	270
4. Webgunea:	https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/osatek-ataria/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Batez ere, puntako teknologiadun irudiaren bidezko diagnostiko zerbitzuak (erresonantzia magnetikoak) kudeatzen, administratzen eta ustiatzen ditugu, nagusiki Osakidetzarentzat. Aurreko zerbitzu nagusia osatze aldera, ikerkuntza eta irakaskuntza ere egiten dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko politika sanitarioaren testuingurua zehazten duten araudia eta baldintzen arabera.</p> <p>EAEko 3 lurraldeetan ditugu gure 10 zentroak (eta Bilbon egoitza nagusia) eta erresonantzia magnetikoak egiteko 18 makina.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Lander Solozabal
Helbide elektronikoa:	lsolozabal@osatek.eus / euskara@osatek.eus
Telefonoa:	685732963 / 944 007 112

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	EUSKARAREN TXANDAK
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Osakidetzaren “zirkuitu elebidunen” ereduari jarraituta, Zumarragako gure zentroko langileek proposatu zuten, 2020an tarteko BIKAIN ziurtagiria lortu ondoren, hilero txanda bat markatzea eta txanda horretan paziente eta langile guztiak euskaldunak izatea.</p> <p>Horrela, pazienteei proba egiteko hitzordua ematerakoan, orain arteko irizpide asistentziaz gain (proba mota, paziente mota, itxaron-zerrendak eta abar), irizpide linguistikoa ere kontuan hartzen dugu eta pazientearen bolantean euskararen “e” logoa ote duen ikusten dugu. Logo horrek esan nahi du pazienteak adierazi diola Osakidetzari euskara lehenesten duela ahozko harremanetarako hizkuntza gisa. Txanda horretara bideratzen ditugun paziente guztiak logodunak dira.</p> <p>Aurrekoaren osagarri modura, txanda horretan aritzen diren langileak elebidunak dira: batzuk euskaldun zaharrak eta beste batzuk ikasten dabiltzanak. Horrek aukera ematen die euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko, euskararen alde. Gainera, Zumarragan mintzapraktika-talde bat dugunez, talde horren helburu modura jartzen dugu txanda horietako batean parte hartzea, eta aurreko asteetan egoten dira txanda hori prestatzen (terminologia, rol-jokoak, esaldiak, agurrak, eta abar) irakasle baten laguntzarekin.</p> <p>2021eko urritik hona 6 txanda egin ditugu Zumarragan. Horietan 8 langilek hartu dute parte eta 110 paziente artatu ditugu.</p> <p>Orain lanean gabiltza esperientzia Eibarko zentrorra ere zabaltzeko.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA